

<<LOGIKA: INPLIKAZIOA>> LABURPENA

Antzinako garaietan baldintza proposizionalen egiazko baldintzen inguruan eztabaida handia egon zen; Diodoro eta Filon, biak megarakoak, izan ziren lehenengoak honetaz eztabaidatzen, geroago estoikoek gaia berreskuratuko zutelarik.

<<Baldin>> konektagailuaren bitartez eraikia dagoen proposizio molekularraz ari gara baldintzataz hitz egiterako orduan. Konektagailu honek atzekaria aurrekariaren ondorio/harreman logikoa dela baieztatzen du, baina ondorio horren inguruko kriterio zuzena bilatzen jardun zuten estoikoek, beranduago ikusiko dugun moduan.

Hasierako eztabaidara itzuliz, esan genezake ikuspegi filonikotik hau defendatzen zela: baldintza bat egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin egiazko aurrekaria eta atzekari faltsua ez badu. Gaur egun inplikazio materiala bezala ezagutzen dugunaren gauza bera da. Ikuspegi diodorikotik ordea, baldintza bat egiazkoa da baldin ez bada, edo ez den inoiz posible izan egiazko aurrekaria eta atzekaria faltsua izatea (izan izana). Hau da, denbora posible guztietan egiazko aurrekaria eta atzekari faltsua izan *behar* du egiazko baldintza bat izateko.

Ikuspegi filonikotik egiazkoak diren baldintzak, ikuspegi diodorikotik faltsuak izan daitezke. Izan ere, baldintza bat egiazkoa da diodororen zentzuan baldin, eta bakarrik baldin egiazkoa bada denbora posible guztietan filonen zentzuan. Egiazkoa izateko diodororen zentzuan, baldintza bera, haren aurrekari eta atzekaria <<*t*>>-ren (denboraren) menpe egonda, egiazkoa izan *behar* da filonen zentzuan *t* parametroaren balio guztietarako. Diodororen arabera, denbora posible guztietan egiazkoa dena, egiazkoa da *halabeharrez* (beharraren zentzu diodorikoan).

Esan beharra dago estoikoen eztabaida hau ez zela Filon eta Diodororen ondorioetara mugatu. Sextok Estoikoek mahai gaineratu zituzten posturen sailkapen bat egin zuen, ahulenetik hasita, non filonen eta diodororen inplikazioak ahulena ziren. Antzinakoek bi inplikazio hauen paradoxaren existentziaz jabetu ziren: <<beti>> faltsua den proposizio batek bere ukapena inplika dezake. Adibidez: 'Baldin ez badira existitzen gauzen elementu atomikoak, orduan gauzen elementu atomikoak existitzen dira'.

Beste inplikazio mota bat aipatzen du Sextok, aurreko bien ostean: inplikazio crispikoa. Honen arabera, egiazko baldintza bat izateko atzekariaren kontrako proposizioak aurrekariarekin bateraezina izan behar du, eta faltsua izateko, atzekariaren kontrako proposizioak aurrekariarekin bateragarria izan behar du. Hirugarren mota hau inplikazio zorrotzaren aurrekari bezala interpretatu izan da.

Hala ere, saiakerak egon dira bigarren mota, inplikazio diodorikoa, inplikazio zorrotzaren aurrekari bezala identifikatzeko. Autore ezberdinak saiatu dira honetan, Martha Hurst eta Roderick Chisholm esaterako. Haien saiakerek ez zuten fruitu handirik eman, eta haien analisisetatik ezin dugu inplikazio diodorikoaren izaerari buruz gehiegi ikasi, Sextoren hitzekin konparatuta.